



II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Basauriko Udala

Basauriko Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren araudi erregulatzilea berriaren hasierako onarpena.

Udalbatzak, 2023ko azaroaren 30eko bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

Lehenengoa: Hasierako onarpena ematea Basauriko Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren araudi berriari, erabaki honen eranskin banaezin gisa erantsitako I. eranskinean agertzen den testuaren arabera.

Bigarrena: Erabaki hau jendaurrean jartzea eta interesdunei entzunaldia ematea, hogeita hamar eguneko epean, dagokion iragarkia Udaletxeko iragarki-oholean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuz, interesdunek aztertu ahal izan dezaten eta egokitzat jotzen dituzten alegazio, erreklamazio edo iradokizun guztiak aurkez ditzaten, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49.b) artikulua.

Hirugarrena: Epe hori igarota, Udalbatzak epearen barruan aurkeztutako erreklamazioak eta iradokizunak ebatziko ditu, eta behin betiko onartuko ditu. Erreklamaziorik edo iradokizunik aurkeztu ez bada, ordura arte behin-behinekoa izan den erabakia behin betiko hartu dela ulertuko da. Behin betiko erabakia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko litzateke, bat etorritik Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan adierazita-koarekin. Lege-testu horren 65.2 artikuluan aurreikusitako epea igarotakoan jarriko da indarrean.

Basaurin, 2024ko urtarrilaren 26an. — Alkatea, Asier Irigorri Basaguren



I. ERANSKINA

BASAURIKO ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA-ZERBITZUAREN ARAUDI ERREGULATZAILEA

LEHENENGO TITULUA

1. artikulua. — *Xedea*

Araudi honen xedea da Basauriko Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua (ELZ) arautzea.

2. artikulua. — *Aplikazio-eremua*

Araudi honetan erregulatzen den zerbitzua Basaurin emango da, Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legean jasotako Gizarte Zerbitzuen arloko udal-eskumenen barruan.

3. artikulua. — *Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren definizioa*

Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua laguntza- eta prebentzio-izaerako zerbitzua da, eta helburu du erabiltzaileari etxean gelditzen laguntzea, eta, isolamendu-egoerak saihestuz, etxean bertan moldatzeko eta komunitate-ingurunean integratzeko laguntza ematea.

4. artikulua. — *Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren helburuak*

Honakoak dira zerbitzuaren helburuak:

- Autonomia pertsonala mantentzea edo hobetzea, narriadurari aurre hartzea, erabiltzaileen autonomia-galera konpentsatzea, eta laguntza partziala edo osoa ematea eguneroko bizitzako oinarrizko jardueretan, norberaren zaintzarako beharrezkoak direnetan, edo/eta eguneroko bizitzako jardura instrumentaletan.
- Bideragarria den guztietan, zerbitzuaren erabiltzaileak ahalik eta denbora gehien gelditzea etxean, bizi-kalitate onargarriarekin, eta, horrela, ahal bezainbeste atzeratzea ostatu-zerbitzu edo egoitza-zentro batean sartzeko unea, edo hori saihestea.
- Erabiltzaileen segurtasun-sentimendua indartzea.
- Erabiltzaileari laguntzeko sare soziofamiliarra osatzen duten zaintzaileei laguntza ematea eta arreta-lanetatik atseden hartzen laguntzea, beraien garapen pertsonal, profesional eta sozialerako baldintza egokiak izan ditzaten.
- Erabiltzailea artatu ohi duen zaintzaile nagusia ordezkatzea noizean behin, hura ez dagoen aldietan.
- Beste zerbitzu batzuen esku-hartzea beharrezkoa izan daitekeenean, premia-egoera horiek hautematea.
- Erabiltzaileak komunitatean integratzen laguntzea, isolamendu- edo/eta bazterketa-egoerak saihesteko.
- Adingabeen zaintza osatzea, gurasoek edo tutoreek behar bezala artatu ezin dituztenean, eta balizko arrisku- edo babesgabetasun-egoerak hautematea.
- Hainbat faktore psikologiko, fisiko zein sozialek eragindako krisi-egoeran dauden familietan bizikidetzak hobetzea, eta faktore horien ondoriozko arriskuak aurreikustea.

5. artikulua. *Jarduteko printzipioak*

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 7. artikuluan ezarritako printzipio orokor hauen arabera arautuko da ELZ: erantzukizun publikoa, unibertsaltasuna, prebentzioa, normalizazioa eta integrazioa, parte-hartzea, osotasuna, osagarritasuna, inklusioa, berdintasuna eta ekitatea, kalitatea eta hizkuntza-eskubideen bermea.

Aurreko paragrafoan ezarritako printzipio orokorrez gain, honako printzipio espezifiko hauen arabera arautuko da ELZ:

- Artatutako pertsonaren autonomia sustatzeko printzipioa: ahalik eta gehien bultzatzen da erabiltzailearen trebetasunak mantentzea, eta benetan beharrezkoa



denean bakarrik ematen da laguntza, erabiltzaileak bere kabuz egin ditzakeen zereginetan sartu gabe.

- Arreta pertsonalizatuko printzipioa: laguntza motak eta laguntzaren maiztasuna erabiltzailearen beharren arabera zehazten dira, eta, ahal den neurrian, haren lehentasunen arabera. Horrela, funtsezkoak dira erabiltzailearen aukeratzeko eskubidea, eta haren benetako parte-hartzea zereginak zehaztu, pixkanaka aldatu eta behar berrietara egokitu behar direnean.
- Arretaren malgutasunaren printzipioa: ELZk eraginkortasunez erantzungo die artatutako pertsonaren eta haren inguruko premia espezifikoak. Esan nahi baita etengabe egokituko direla etxeko laguntzaileak bete beharreko eginkizunak, baita ordutegiak eta arreta-egunekin zerikusia duten alderdiak ere.
- Arreta koordinatzeko printzipioa: ELZren eta beste zerbitzu batzuen esku-hartzeen koherentzia eta osagarritasuna bermatzeko bideak ezarriko dira, bereziki etxean emandako zerbitzuetan (etxeko ospitaleratzea, lehen mailako arreta, erizaintzako zainketak) eta komunitate-eremuan emandako zerbitzuetan (telelaguntza, laguntza tekniko eta teknologikoak, eguneko arreta, atsedenerako formulak).
- Arreta-langileen jarraitutasun eta erregularatasuneko printzipioa: zerbitzua antolatzeko orduan, ahaleginak egingo dira profesionalak gehiegi ez txandakatzeko, edo zerbitzuko funtzioetan profesional gehiegi ez erabiltzeko.
- Profesionaltasunaren printzipioa: ELZn lan egiten duten pertsonak jarrera profesionala, errespetuzkoa eta hurbila izan behar dute. Gainera, gaitasuna eta beharrezko ezagutza izan behar dituzte artatutako pertsonaren beharrei erantzuteko eta «zereginen orrian» jasotako funtzioak betetzeko, bai eta zerbitzuan behar berriak hautemateko eta hobekuntzak proposatzeko, pertsonaren premietara zein lehentasunetara ahalik eta hoberen egokitzeko.

BIGARREN TITULUA

ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA

I. KAPITULUA

ZERBITZUAN ONARTUTAKO ETA BAZTERTUTAKO PRESTAZIOAK ETA HORIEN EZAUGARRIAK

6. artikulua.— *Onartutako eta baztertutako prestazioak*

6.1. Zerbitzu honetan, prestazio hauek sartzen dira:

1. Informazioa: erabiltzaileei haien eskubideak eta zerbitzua behar bezala eta garaiz ezagutzeko aukera ematea.
2. Jarraipeneko balorazioa: Arreta Pertsonalizatuko Planaren aldizkako ebaluazioak egitea, sakontasun handiagoz edo txikiagoz.
3. Etxeko arreta: prestazio horren bidez, eguneroko bizitzako jarduera instrumentalak egiteko laguntza partziala edo osoa jasotzen dute erabiltzaileek, batez ere elikadurarekin, janztearekin eta etxebizitzako instalazioen mantentze-lanekin lotutako zereginetan, eta antolatzen laguntzeaz gain, jarduera horiek egiteko trebakuntza jasotzen dute, behar izanez gero.
4. Banakako arreta: prestazio horren bidez, eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak egiteko laguntza partziala edo osoa jasotzen dute erabiltzaileek, edo/eta beren ingurunearekin (familia eta komunitatea) lotzen dituzten jarduera instrumentalak egiteko laguntza. Gainera, jarduera horiek egiteko trebakuntza jasotzen dute, behar izanez gero.
5. Gizarte-laguntza: prestazio horren bidez, garapen autonomoa eta gizarte-integrazioa hobetzeko laguntza-harreman batean parte hartzen du pertsonak, profesional kualifikatu batekin elkarreraginean, isolamendu-egoerak saihesteko asmoz.



6. Hezkuntza-arloko prestazioak: portaera-ohiturak sustatzea eta oinarrizko trebetasunak eskuratzea helburu duten prestazioak dira, bai eta zerbitzuaren helburua betetzeko ezar daitezkeen beste prestazio batzuk ere, pertsonaren etxean egingo direnak.
- 6.2. Beste ezohiko jarduera batzuk:

Inguruabar berezietan, eta modu mugatuan, zerbitzuaren helburuak betetzeko ezinbestekotzat jotzen diren beste jarduera batzuk egin daitezke. Jarduera horiek egiteko, beharrezkoa eta ezinbestekoa izango da eskumena duen organoaren berariazko baimena.

 1. Garbiketa orokorrak higiene-arazo larriak dituzten etxeetan, zerbitzu normalizatua ezarri aurretik.
 2. Zerbitzuaren titularraren beharrezko gauzak jasotzea, baldin eta hura etxean ez badago bat-bateko arrazoi batengatik (larrialdiko ospitaleratzea edo premiaz egoitza-zentroan sartzea) eta ez badu hori egin diezaiokkeenik. Kasu horietan, gizarte-langilea eta etxeko langilea sartuko dira etxean, erabiltzailearen baimenarekin.
 3. Giltzak zaintzea.
 4. Prestazio teknikoak.
 5. Inguruabar berezietan, zerbitzuaren helburuak betetzeko ezinbestekotzat jotzen diren beste jarduera batzuk egin daitezke.
- 6.3. Hauek dira zerbitzu honetatik kanpo geratzen diren prestazioak:
 1. Etxe berean bizi diren beste pertsona batzuei arreta pertsonala ematea, zerbitzuaren onuradun ez direlako.
 2. Etxe berean bizi diren beste pertsona batzuei etxean laguntzeko jarduerak, zerbitzuaren onuradun ez direlako.
 3. Konpainia eta ibilaldiak, betiere beste prestazio batzuekin batera ez badaoz edo beste zerbitzu batzuekin bateragarriak ez badira.
 4. Osasun-arloko jarduerak, baldin eta langileek horiek emateko prestakuntza espezifiko behar badute (injekzioak jartzea, zundak maneiatzea, ultzerak eta eskarak tratatzea eta ezagutza espezifikoak eta antzekoak eskatzen dituzten medikazio-emateak).
 5. Etxean lan profesionalak egitea (pintatzea, papera jartzea...).
 6. Artikulu honetako 1. atalean zehaztu ez diren garbiketak.
 7. Etxeko langileentzat arrisku fisikoa dakarten zereginak.
 8. Errehabilitazio- edo mantentze-ariketak egiteko laguntza.
 9. Ezarritako ordutegitik kanpoko zerbitzuak.
 10. Ospitale eta egoitza-zentroetan zerbitzuak ematea.
 11. Kontratututako zerbitzuetatik kanpoko denboran zerbitzuak ematea, modu pribatuan.
 12. Zerbitzu teknikoek egindako zereginen orrian edo eginkizunen fitxetan aurreikusita ez dauden bestelako zeregin guztiak, eta beste administrazio batzuen eskumenekoak direnak.

7. artikulua. — Zaintzaileek atsedean hartzeko aldagaia

Udalaren ELZren bidez ematen den aldi baterako laguntza da, mendekotasun-egoeran edo -arriskuan daudenean bizi diren eta horiek zaintzen dituzten senideentzat, azken horiek atsedean hartzeko denbora izan dezaten eta beraien garapen pertsonal, profesional eta sozialerako baldintza hobek izan ditzaten.

Zaintzaileek atsedean hartzeko aldagaia bi eratan eskaini daiteke: mendekotasun-egoeran edo -arriskuan dagoen pertsona aldi baterako ELZn sartuz, edo zerbitzuaren maiztasuna aldi baterako indartuz.



Zerbitzuak helburu du arreta-sare naturala osatzen duten zainzaileei laguntzea:

- Etxetik kanpo jarduera zehatzak egiteko denbora hartzeko aukera ematen dio zainzaile nagusiari.
- Profesional adituen bitartez ziurtatzen du zaindutako pertsonari arreta egokia emango zaiola, zainzailea ez dagoen bitartean.
- Mendekotasun-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak etxean eta haien ingurunean geratzen laguntzen du.

8. artikulua. — Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren ezaugarriak

1. ELZ oro har emango da onuraduna bizi den etxean, Basauriko udal-mugartean.
2. Kontuan hartuta onuraduna senideen etxeetan txandaka bizitzen egon daitekeela, zerbitzua etxe bakarrean edo gehiagotan eman ahalko da, araudi honen 10.1 artikuluan aurreikusitako baldintzetan. Kasu horretan, epeak ez dira izango 15 egunetik beherakoak.
3. Ez da zerbitzurik emango erabiltzailea bertan ez dagoela, 6.2.2 artikuluan jasotako salbuespenezko egoeran izan ezik.
4. Arreta-egunak:
 - 4.1. Oro har, zerbitzua astelehenetik ostiralera emango da, preskripzio teknikoaren arabera.
 - 4.2. Modu mugatuan eta balorazioaren arabera, mendekotasun-egoeran dauden pertsonen asteburu eta jaiegunetan zerbitzua eman ahal izango zaie norbere arretako zereginetarako, betiere zeregin horiek egin ditzakeen gizarte- edo familia-sarerik ez badago.
 - 4.3. Eusko Jaurlaritzak ofizialki halakotzat jotzen dituenak izango dira jaiegunak.
 - 4.4. Arretaren gutxieneko maiztasuna astean egun bat izango da. Ez da hamabostean behingo zerbitzurik ezarriko.
5. Zerbitzuaren maiztasuna:
 - 5.1. Zerbitzua emateko denbora-mugak erabiltzaileen beharren banakako ebaluazioaren arabera zehaztuko dira. I. eranskinean zehaztu dira gehieneko maiztasunak.
 - 5.2. Mendekotasun-egoeran dauden norbanakoen kasuan, zerbitzuaren maiztasuna ezarriko da hileko zerbitzu-orduen kopurua zehaztuta, mendekotasun-graduaren arabera. Hori guztia egingo da uztailaren 18ko 27ko 675/2023 Errege Dekretuaren II. eranskinaren arabera, horren bidez aldatzen baita Autonomiaren Aldeko eta Mendekotasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren prestazioak arautzen dituen abenduaren 27ko 1051/2013 Errege Dekretua. Aipatu behar da Autonomia Pertsonala Sustatzeari eta Mendekotasun Egoeran dauden Pertsonak Zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legean daudela ezarrita aipaturiko prestazioak.
 - 5.3. Denbora-tarteak ez dira izango 30 minututik beherakoak, eta gehieneko prestazioa astean hogeita hiru ordu eta erdi izango da, nahiz eta ordu gehiagokoa izan daitekeen artikuluko honen 4.2 puntuan jasotako salbuespenezko kasuetan. Gehieneko hori malgutasun handiagoz banatu daiteke, baldin eta, irizpide profesionalaren arabera, beharrezkotzat jotzen bada zainketak osatzeko edo/eta ordeztzeko, eta, horrela onuraduna etxean geratu ahal izateko.
6. Arreta-ordutegia:
 - 6.1. Zerbitzuaren ordutegi orokorra malgua da, eta nagusiki 7:00etatik 22:00etara izango da.
 - 6.2. Laguntza pertsonala emateko ordutegia ezartzeko, eskatzailearen ordutegi-ohiturak eta premiak hartuko dira kontuan.



- 6.3. Etxeko laguntzako eta gizarte-laguntzako prestazioetan, zerbitzuak ematen dituzten langileen aukeren arabera ezarriko dira ordutegiak.
- 6.4. Erabiltzaileari etxean laguntzeko astero eman beharreko ordu guztiak ez dira emango egun berean.
- 6.5. Greba egonez gero, dagokion araudian ezarritako gutxieneko zerbitzuak bermatuko dira.

II. KAPITULUA ERABILTZAILEAK

9. artikulua. — *Erabiltzaileak zehaztea*

1. Zerbitzuaren erabiltzaileen profilari dagokionez, autonomia galdu duten edo kalteberatasun-egoeran dauden pertsonak dira, ohiko etxean bizitzen jarraitzekotan aldi baterako laguntza edo laguntza iraunkorra behar dutenak eguneroko bizitzako oinarritzko jarduerak egiteko. Gainera, honako egoera hauetakoren batean egon behar dute:

- A) I., II. eta III. graduako mendekotasun aitortua duten pertsonak edo mendekotasun-arriskuan daudenak (mendekotasuna baloratzeko baremoan 23 eta 24 puntu artean dituztenak), Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren esparruan.
- B) Modu mugatuan eta preskripzio tekniko:
 - a) Babesgabetasun-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak, baztertu, isolatu edo abandonatuak, edo tratu txarrak jasotzen dituztenak.
 - b) Eriondoan dauden pertsonak edo zaintza aringarriak behar dituztenak.
 - c) Balioespen teknikoen arabera, zerbitzu honek eskainitako arreta jaso dezaketen pertsona edo/eta egoera guztiak.

2. Eskaera egiten bada elkarbizitza-unitate bereko pertsona bat baino gehiago onuradun izateko asmoz, zerbitzuaren titular bat izendatuko da eta berak ordezkatzeko ditu onuradun guztiak. Hala ere, titularra hil, egoitza-zentro batean sartu edo bizilekuz aldatzen bada, elkarbizitza-unitateko beste onuradun bat izan daiteke ordezkari berria.

3. Titulartasuna aldatzen denean, berriro baloratu beharko dira beharrak, egoera soziofamiliarra eta egoera ekonomikoa.

10. artikulua. — *Sartzeko baldintzak*

Araudi honen 9. artikuluan adierazitako egoeraren batean egoteaz gain, eskatzaileak baldintza hauek bete beharko ditu zerbitzuan sartzeko:

10.1. *Administrazio-baldintzak:*

1. Eskaera egin den datan Basaurin erroldaturik egotea, eta bertan erroldatua jarraitzea araudi honen 9-1-A artikuluan aurreikusitako egoeretan.

Aurreko baldintza betetzen ez duten pertsonak ere erabil dezakete zerbitzua, baldin eta familiaren laguntza jaso ahal izateko udalerrri bat baino gehiagotan bizi badira senideen etxeetan txandaka, eta erroldaturik dauden udalerrian ELZren onuradun badira. Kasu horretan, jatorrizko udalerriko Gizarte Zerbitzuen ziurtagiria aurkeztu beharko dute, eta bertan adierazi beharko dira jasotzen duten etxeko laguntza-zerbitzuaren prestazioak.
2. Udalerrian izateko bizilekua izatea. Norberaren etxebizitza edo zaintzaile nagusiarena izan daiteke etxe hori.
3. Araudi honen 9-1-B artikuluan aurreikusitako egoeretan dauden pertsonak, mendekotasun-egoera aitortua ez dutenek, Basaurin erroldaturik egon beharko dute ELZren onuradun izateko eskaeraren datan, eta bertan erroldaturik jarraitu zerbitzua jasotzen duten bitartean.

10.2. *Beharraren baldintzak*

1. Eguneroko bizitzako oinarritzko jarduerak edo/eta jarduera instrumentalak egiteko laguntza behar izatea.



2. Erabiltzailea bertan egotea eragozten edo asko zailtzen ez duen etxea izatea, eta etxe hori erabiltzailearentzat edo etxeko langileentzat arriskutsua ez izatea.
3. Beharrezkoa balitz, bizilekuan baldintza egokietan geratzeko behar adina laguntza jasotzeko aukera izatea, ELZz gain.
4. Erakunde sanitario edo soziosanitarioetan osasun-laguntza jarraitua behar ez izatea.
5. Gaixotasun kutsakorra edo mentala izanez gero, horren tratamendua ez baztertzea.
6. Jokabidearen nahasmendurik ez izatea, edo etxeko langileentzat arriskutsua izan daitekeen portaerarik ez izatea.

11. artikulua. — Erabiltzaileen eskubideak

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 9. artikuluan ezarritakoaz gain, etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren erabiltzaileek eskubide hauek izango dituzte:

- Arrera Pertsonalizatutako Planean zehaztutako edukiaren eta maiztasunaren araberako zerbitzua jasotzea.
- Zereginen programazioan parte hartzea.
- Prestazioa osatzen duten jarduerak eta ordutegia (zerbitzuaren maiztasuna eta esku-hartze bakoitzaren iraupena) zehazten dituen zereginen orriaren kopia bat izatea.
- Prestazioa aldatzea, etetea edo iraungitzea eragin dezaketen inguruabarren berri izatea.
- Zerbitzua ematen duen laguntzailea aldatzeko edo zerbitzuaren maiztasuna aldatzeko eskatzea, behar bezala arrazoituta.
- Zerbitzua EAEko hizkuntza ofizialetako edozeinetan jasotzea.

12. artikulua. — Erabiltzaileen eta haiekin bizi direnen betebeharrak

12.1. Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 10. artikuluan ezarritakoaz gain, etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren erabiltzaileek betebeharrak izango dituzte:

- Zerbitzua ematen duten profesionalak errespetuz eta era egokian tratatzea, haien lana erraztea eta laguntzea, bai eta lanean ari direnean haien intimitaterako eskubidea bermatzea ere.
- Erabiltzailearen egoera sozioekonomikoa baloratzeko beharrezkoak diren dokumentuak ematea eta bizilekura sartzen uztea, adierazitako balorazioa eta ondorengo jarraipen-bisitak egiteko.
- Zerbitzua jaso bitartean gaixotasun kutsakorren bat izanez gero, horren berri ematea, etxeko laguntzaileek beharrezko babes-neurriak har ditzaten.
- Osasun-egoeragatik beharrezkoa izanez gero, osasun-zerbitzuetara jotzea.
- Ez eskatzea aldeztu aurretik adostuta ez dagoen prestaziorik, ez eta udal-ebazpean sartuta ez dauden pertsonen arreta ematea ere.
- Etxez etxeko zerbitzuko laguntzaileak zerbitzua ematen ari diren bitartean etxean egotea, berriazko baimena edo preskripzio teknikoak izan ezean.
- Zerbitzua etetea eragin dezaketen lekualdatzeak aldeztu aurretik jakinaraztea.
- Zerbitzuaren alderdiren bat aldatzea dakarten inguruabar pertsonalak egonez gero, udal-teknikariei behar besteko aurrerapenez jakinaraztea (gutxienez 24 orduko epearen barruan, egiaztatutako premiazko arrazoiak daudenean izan ezik).
- Esleitutako etxeko lanak eta lan pertsonalak egiteko behar diren lanabesak eta materialak eskaintzea etxez etxeko laguntza-zerbitzuko langileei.



- Zerbitzua ematean antzemandako anomalien berri ematea.
 - Salbuespenez, erabiltzaileak erakunde esleipendunari etxebizitzako giltzak ematea, bestela ezinezkoa bada etxera sartzea zerbitzua emateko. Kasu horietarako protokoloetan eta kontratuetan ezarritako moduan jardungo da.
 - Bizilekuan etxeko animaliak egonez gero, animalia horiek ez dute zerbitzua zailduko eta ez dute zerbitzuan eragingo.
 - Botikak gainbegiratzeko zerbitzua ematen den kasuetan, zerbitzua ematen ari den profesionalari argibide egokiak eta eguneratuak ematea gainbegiratu beharreko botikei buruz.
 - Zerbitzuaren prezioa adierazitako epean ordaintzea, barne hartuta esleitu bai baina eskatzaileari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik azkenean egin gabe geratu diren zerbitzuak. Bestalde, zerbitzua aldi baterako eteten bada, zerbitzua gordezteagatik ere ordaindu egin beharko da.
 - Egoera sozio-ekonomikoan izandako edozein aldaketa esanguratsu jakinaraztea, dagokion ordenantza fiskalean ezarritakoaren arabera.
 - Prezio publikoa/tasa ordaintzeko erabiliko den banketxea adierazi eta kontu korrontearen zenbakia ematea.
 - Bizkaiko Foru Aldundiari mendekotasunaren edo/eta desgaitasunaren balorazioa eskatzea, hala badagokio, preskripzio teknikoaren mende.
- 12.2. Betebehar horietakoren bat betetzen ez bada, zerbitzua eten edo amaitzeko prozedura hasiko da, araudi honetan ezarritako prozeduraren arabera.

III. KAPITULUA

SARTZEKO PROZEDURA

1. ATALA

SARTZEKO ETA ONARTZEKO PROZEDURA ARRUNTA

13. artikulua.— *Sartzeko eskaera*

Araudi honetan erregulatutako etxez etxeko laguntza-zerbitzua erabiltzeko, interesdunak aurretik eskaera egin beharko dio organo eskudunari, inprimaki normalizatuan. Eskatzaileak sinatuta egongo da eskaera, eta Udalak horretarako jarritako edozein erregistrotan aurkeztu behar da, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitako moduan.

14. artikulua.— *Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak*

1. II. eranskinean jasotako dokumentazioa eskatzaileari buruzkoa izango da, eta, hala badagokio, bizikidetz-unitateko gainerako kideei buruzkoa, bai eta eskatzailearen ezkontideari edo izatezko bikotekideari eta etxean bizi diren gainerako pertsonen buruzkoa ere, baldin eta eskatutako zerbitzuan etxeko laguntza-zerbitzuak egin behar badira.

2. Eskatzaileak ez badu nahi bere egoera ekonomikoa baloratzea edo froga bidez justifikatzen ez badu, uko egingo dio bere egoera ekonomikoa kontuan hartzeari, eta, beraz, dagokion ordenantza fiskalean zehaztutako zerbitzuaren prezio publiko osoa ordaindu beharko du.

3. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.3 artikulua aplikatuz, herritarrek ez dute aurkeztu beharko I. eranskineko agiririk, baldin eta administrazioak lehendik baditu agiri horiek. Horretarako, interesdunak adierazi beharko du zer egunetan eta zer organori aurkeztu zion dagokion agiria. Udalaren edo Aldundiaren gizarte-zerbitzuek ezin badituzte agiri horiek aurkitu, berriz aurkezteko eska diezaioke interesdunari.

4. Eskabidearekin batera aurkeztutako dokumentazioa ez balego osorik edo akatsak balitu, 10 egun balioduneko epea emango zaio eskatzaileari beharrezko dokumen-



tazioa aurkezteko edo antzemandako akatsak zuzentzeko, eta jakinaraziko zaio hori egiten ez badu eskaeran atzera egin duela ulertuko dela.

5. Udalak eskatzailearen datuak egiaztatu edo bilduko ditu eta, hala badagokio, gainerako onuradunenak. Agiri honetan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzen bakarrik erabiliko dira datu horiek, eta, hala badagokio, zerbitzua finantzatzeko betekizunak eta baliabide ekonomikoak egiaztatzen.

6. Eskatzaileak, edo, hala badagokio, gainerako onuradunek ez badute nahi Udalak kudeaketak egin ditzan haiei buruzko datuak egiaztatu edo biltzeko, idatziz jaso beharko dute ezezko hori, eta, kasu horretan, bi aukera hauek izango dituzte:

- Elkarreragingarri izateko baimendu nahi ez duten dokumentazioa aurkeztea.
- Zerbitzuaren kostuaren %100 ordaintzea.

7. Datuak faltsutzen eta ezkututzen badira, zerbitzuaren eskatzaile-izaera galduko da, eta hainbat erantzukizun ekar ditzake horrek.

15. artikulua. — Izapidetza

Erabiltzaileen beharrezko ebaluazioa eta txosten soziala-proposamena Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legean jasotako zehaztapenen arabera egingo dira.

A) Beharrezko ebaluazioa

1. Eskatzailearen bizilekuari (edo, hala badagokio, bizileku ibiltariari) dagokion udalaren Gizarte Zerbitzuetako Gizarte Laneko teknikariek izapidetu, baloratu eta ebaluatuko dituzte eskatzailearen beharrezkoak.

2. Udalaren Gizarte Zerbitzuetako teknikariek dokumentazioa aztertuko dute, eta egoki diren kudeaketa eta jarduketa guztiak egingo dituzte honako alderdi hauek baloratzeko:

- 2.1. Eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak egiteko laguntza-beharrak, arlo hauetan: norbere buruaren zaintza, jaiki eta oheratzea, janzteia, ibiltzea, elikatzea, garbitzea eta esfinterren kontrola.
- 2.2. Eguneroko bizitzako jarduera instrumentalak egiteko laguntza-beharrak, besteak beste elikagaiak erosi eta prestatzeko, etxea eta sukaldeko tresneria garbitzeko, arropa garbitzeko, erosketak egiteko, dirua maneiatzeko, botikak kontrolatzeko eta etxe barruan zein kanpoan joan-etorriak egiteko.
- 2.3. Egoera sozio-familiarra. Baloratuko da eskatzaileak bizikideekin eta ingurune sozialarekin duen harremana, eta familia- eta gizarte-sareak zer gaitasun eta aukera duen haren arreta-premiei erantzuteko.
- 2.4. Etxebizitzaren egoera higiene-, ekipamendu-, bizigarritasun- eta irisgarritasun-baldintzei dagokienez, laguntza teknikoaren beharra, eta inguruan duen kokapena.
- 2.5. Egoera ekonomikoa.

B) Txosten soziala-proposamena

Udalaren Gizarte Zerbitzuetako Gizarte Laneko zerbitzu teknikoek nahitaezko txosten soziala eta proposamen-txostena egingo dute, eta honako hauek zehaztuko dituzte:

1. Zerbitzuan sartzeko eta eskabidea aurkezteko baldintzen betetze-maila.
2. Hala badagokio, eskakizunetatik salbuesteko proposamen arrazoitua.
3. Eskatzailearen eta, hala badagokio, haren bizikidetzaren unitatearen inguruabar pertsonalak, familiakoak eta sozialak.
4. Esku-hartzearen onuradunak, egin beharreko zerbitzu-mota, asteko ordu- eta egun-kopurua, proposatutako zereginak eta zerbitzuaren iraupena.
5. Hala badagokio, zerbitzu bereziak jasotzeko proposamen arrazoitua.
6. Eskatzaileak zerbitzuagatik ordaindu beharreko prezioa.
7. Hala badagokio, zerbitzua ukatzeko proposamen arrazoitua.

**16. artikulua.—Ebazpena**

1. Eskabidea aztertu eta baloratu ondoren, eta txosten soziala egin ondoren, organo eskudunari igorriko zaio. Azken horrek ebazpen arrazoitua emango du, egindako zerbitzu-eskaera onartzeko edo atzera botatzeko.

2. Ebazpena gehienez ere hiru hilabeteko epean eman beharko da, eskaera udal-erregistroren batean sartzen denetik zenbatzen hasita. Epe hori eten egingo da eskabideak zuzentzeko eskatuz gero, horren jakinarazpena egiten denetik egin beharrekoak egin arte, edo, bestela, emandako epea igaro arte, edo Bizkaiko Foru Aldundiari nahitaezko txostena eskatu behar izanez gero eskatzailearen autonomiaren balorazioari buruz, eta gauza bera gertatuko da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 22. artikuluan aurreikusitako gainerako kasuetan ere.

3. Aurreko atalean aurreikusitako epea igarotakoan ez bada berariazko ebazpenik eman, eta ebazteko betebeharrari kalterik eragin gabe, eskaera atzera bota dela ulertuko da. Orduan, aukerako berraztertze-errekurtsoa edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango du interesdunak.

4. Eskaria onartzeko ebazpenak alderdi hauek jaso beharko ditu:

4.1. Prestazioa emango dela, honako hauek zehaztuta: zerbitzuaren iraupena, mota, maiztasuna eta kostua, bai eta onuradunari dagokion ekarpen ekonomikoa ere.

4.2. Ebazpen-proposamenean jasoko da, halaber, zerbitzu edo prestazio ekonomikoa bat jasotzeko eskubidea aitortzeak betebeharrak haur dakarkiola eskatzaileari, eta, hala badagokio, haren legezko ordezkariari edo izatezko zaintzaileari: eskubide horretan eragina izan dezakeen edozein aldaketa organo eskudunari jakinarazteko betebeharra, aldaketa hori gertatu eta 15 egun naturaleko epean.

5. Eskaria atzera botatzeko ebazpenean, erabaki horren arrazoiak jaso beharko dira, eta honako kasu hauetan izango da bidezkoa:

5.1. Sarbide-baldintzak betetzen ez direnean, 8. artikuluan jasotzen diren bezala.

5.2. Eskatzaileak berak ase ditzakeenean eskarian adierazitako premiak, bere kabuz edo/eta senitartekoen laguntzarekin edo/eta beste baliabide pertsonal batzuekin.

5.3. Etxez etxeko laguntza-zerbitzua ez denean eskatzailearen premiak asetzeko baliabiderik egokiena.

5.4. Zerbitzuak erabiltzaileari nahiz zerbitzua ematen duen langileari arrisku fisiko edo/eta psikikoak eragin diezazkiokeela baloratzen denean.

5.5. Behar bezala arrazoitutako beste arrazoi batzuk daudenean.

6. Ebazpena legeak ezarritako epeetan eta formalitateekin jakinaraziko da. Ebazpenaren aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio organo eskudunari, edo, bestela, zuzenean administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurkaratu ahal izango da, legez ezarritako epe eta baldintzetan.

7. Zerbitzua ematen duen erakundeak beharrezkoa den informazioa jasoko du, eta zerbitzua gauzatu beharko du zerbitzua emateko kontratuan ageri den epean.

17. artikulua.—Atzera egitea

Prozeduraren edozein unetan eta ebazpena eman baino lehen, eskatzaileak edo, hala badagokio, haren legezko ordezkariak atzera egin dezake eskaeran, eta, kasu horretan, hori egiteko bere nahia idatziz jasotzeko edozein bitarteko erabiliko du. Hori gertatuz gero, espediente artxibatu egingo da.



18. artikulua.— *Uko egitea*

Prozedura abian dagoen bitartean eskatzailea plazaren onuraduna dela aitortzeko ebazpena ematen bada, erabiltzaileak, edo, hala badagokio, haren legezko ordezkariak uko egin ahal izango dio bere eskubideari, hori egiteko bere nahia idatziz jasotzeko edozein bitarteko erabiliz.

2. ATALA

PREMIAS SARTZEKO PROZEDURA

19. artikulua.— *Premiazko sarbidea*

1. Salbuespen gisa, eta ohiko prozeduran aurreikusitakoa baino azkarrago izapidetu behar diren eta lehentasunezko arreta behar duten muturreko edo premiazko kasuetarako, udaleko gizarte-zerbitzuek zerbitzua berehala ematen hasteko eskatu ahal izango dute, prozedura arrunteko jarduketak hasi aurretik; dena den, ondoren prozeduran aurreikusitakoaren arabera izapidetu beharko da espedientea, eta gehienez 15 egun naturaleko epea izango da horretarako.

2. Halakoetan, zerbitzua behin-behinean emango da, eta zerbitzua premiaz jasotzea ahalbidetzen duen ebazpena berresteko ezinbestekoa izango da sartzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzea.

3. Udaleko Gizarte Zerbitzuek, hala badagokio, zerbitzua premiazkoa dela jakinaraziko diote erakunde emaileari, eta hark 24 orduan gauzatu beharko du.

IV. KAPITULUA

ZERBITZUAREN EGOKITZAPENA ETA JARRAIPENA

20. artikulua.— *Jarraipena eta ebaluazioa*

1. Udaleko Gizarte Zerbitzuek etengabeko jarraipena egingo dute, zerbitzuak erabiltzaileen beharretara egokitzen diren ikusteko, eta, beharrezko aldaketak proposatzeaz gain, erabiltzaileekin batera ebaluatuko dute proposatutako helburuak lortu diren; horretarako, beharrezkotzat aurreikusten da etxez etxeko bisitak egitea eta aldi behin harremanetan jartzea etxez etxeko laguntzaileekin.

2. Aldian behin ebaluazioak egin ahal izango dira, bai onuradunak eskatuta, baita erakunde emaileak eskatuta ere, edo protokolo eta kontratuetan ezarritako moduan.

21. artikulua.— *Egokitzeko aldia*

1. Zerbitzua jasotzen duten lehen hiru hiletan, onuradunak zerbitzuaren ezaugarri eta funtzionamendura egokitzeko aldi egongo dira. Gizarte Zerbitzuetako teknikariek eta/edo zerbitzuak kudeatzen dituzten enpresetako profesionalek une oro hitz egingo dute onuradunarekin sortzen diren arazoei buruz eta egokitzapen egokia lortzeko irtenbideak bilatuko dituzte.

2. Erabiltzailearekin batera irtenbideak lortzen saiatu ondoren erabiltzailea zerbitzura edo zerbitzua erabiltzailera egokitzeko zailtasunak badaude, edo ikusten bada zerbitzuak ez dituela modu egokian asetzen eskatzailearen beharrak, egoera baloratu, eta proposamen bat egingo da, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek aurretiazko txostena egin ostean.

3. Proposamen hori erabiltzaileari jakinaraziko zaio, eta 15 eguneko epea izango du alegazioak egiteko.

4. Alegazioak aztertu ondoren, behin betiko proposamena bidaliko zaio organo eskudunari, eta hark ebazpen arrazoitua emango du. Erabiltzailea zerbitzutik kanpo uztea ebaziz gero, beste aukera bat proposatuko zaio, halakorik baldin bada.



V. KAPITULUA

ZERBITZUA ETETEA ETA AMAITZEA

22. artikulua.— *Zerbitzua etetea*

1. Etxez etxeko laguntza-zerbitzua arrazoi hauengatik etengo da:
 - 1.1. Erabiltzaileak ez badu betetzen 12. artikuluan ezarritako betebeharren bat, baldin eta zerbitzua bertan behera uzteko arrazoa bada. Zerbitzua ofizioz etengo da.
 - 1.2. Aldi batez ez bada betetzen 10. artikuluan ezarritako baldintzaren bat. Zerbitzua ofizioz edo erabiltzaileak eskatuta etengo da.
 - 1.3. Erabiltzailea ez badago etxebizitzan, urte naturalean gehienez 3 hilez.
 - 1.4. Behar bezala justifikatutako beste arrazoi batzuegatik.
2. Erabiltzailea aldi batez etxebizitzan ez dagoelako zerbitzua eten behar bada, erabiltzaileak gutxienez 24 ordu lehenago eman beharko du egoeraren berri; salbuespena dira larrialdiagatik epe hori betetzeko aukerarik ez dagoen egoerak, baldin eta behar bezala justifikatuta badaude.
3. 3 hileko etenaldia igarota erabiltzailea etxebizitzara itzuli ez bada, zerbitzua amaitu egingo da.
4. Artikulu honetako epeak luzatu ahal izango dira, profesionalek egokitzat jotzen badute.
5. Zerbitzuaren prezio publikoa ordaintzeari dagokionez, artikulu honetan aurreikusitako kasuetan dagokion ordenantza fiskalak xedatutakoa beteko da.
6. Zerbitzua eteteko arrazoiaren bat baldin badago, dagokion espedientea izapidetuko da, eta organo eskudunaren ebazpenaren bidez zerbitzua aldi baterako etetea ebatziko da, interesdunak esan beharrekoa entzun eta gero. Ebazpen hori erabiltzaileari jakinaraziko zaio.

23. artikulua.— *Zerbitzua amaitzea*

1. Etxez etxeko laguntza-zerbitzua arrazoi hauengatik amaituko da:
 - 1.1. Erabiltzaileak, haren legezko ordezkariak edo egitatezko zaintzaileak zerbitzuari uko egiten badio idatziz.
 - 1.2. Onarpen-ebazpenean aurreikusitako epea bukatzen bada, hala badagokio.
 - 1.3. Erabiltzailea hiltzen bada.
 - 1.4. Erabiltzailea beste udalerrri batera joaten bada, familia-txandakatzearen kasuetan izan ezik.
 - 1.5. Erabiltzailea etxez etxeko laguntza-zerbitzuarekin bateragarria ez den beste baliabide edo programa batean sartzen badute.
 - 1.6. Zerbitzua ematea eragin zuen premia desagertzen bada.
 - 1.7. Zerbitzua esleitzean kontuan izan ziren datuak faltsuak baziren edo datu-uren bat ezkutatu bazen.
 - 1.8. Erabiltzaileak zerbitzua eskuratzeko baldintzetakoren bat betetzeari uzten badio behin betiko.
 - 1.9. Zerbitzuari jarraipena egiteko eskatutako dokumentazioa aurkezten ez bada.
 - 1.10. Onuradunaren gizarte egoeran eta egoera ekonomikoan izandako aldaketek buruzko informazioa 30 egun naturaleko epean aurkezten ez bada.
 - 1.11. Aldi baterako etenaren epea igarota etxera itzultzen ez bada.
 - 1.12. Zerbitzua eskaintzen duten langileei eraso fisiko edo psikologikoa eginez gero.
 - 1.13. Araudi honen 12. artikuluan erabiltzaileentzat aurreikusita dauden betebeharrak behin eta berriz ez betetzeagatik.



- 1.14. Erabiltzaileak edo zerbitzua eskaintzen duen langileak arrisku fisikoak edo/ eta psikikoak izan baditzake, udal-zerbitzu teknikoak alde aurretik balorazioa eginda.
 - 1.15. Behar bezala justifikatutako beste arrazoi batzuegatik.
2. Zerbitzua amaitzeko ebazpenaren ondoren erabiltzaileak berriro sartu nahi badu zerbitzuan, berriro egin beharko du eskaera, eta araudi honetan zehaztutakoaren arabera izapidetuko da.
3. Zerbitzua amaitu ostean erabiltzaileak egin gabe baditu zenbait ordainketa, ordaintzeko eskatuko zaio, berriro zerbitzua eman aurretik.
4. Zerbitzua amaitzeko arrazoiren bat baldin badago, dagokion espedientea izapidetuko da, eta organo eskudunaren ebazpenaren bidez zerbitzua amaitzea ebatziko da, interesdunak esan beharrekoa entzun eta gero. Ebazpen hori erabiltzaileari jakinaraziko zaio.

VI. KAPITULUA

ZERBITZUAREN ARAUBIDE EKONOMIKOA

24. artikulua.— Etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren prezio publikoa

1. Erabiltzaileak etxez etxeko laguntza-zerbitzuagatik ordaindu beharreko prezioa unean-unean indarrean dagoen ordenantza fiskalak zehaztuko du.
2. Ez zerbitzua ematen duten langileek, ezta enpresa esleipendunak ere, ez dute onartuko ez dohaintzarik, ez aurreko paragrafoan xedatutakotik kanpoko ordainketa gehigarriak. Enpresa esleipendunak betebeharrak hori betetzen dela zainduko du.

25. artikulua.— Finantzaketa

Honako hauek finantzatuko dituzte zerbitzuak:

1. Onuradunak zerbitzuaren finantzaketan parte hartu beharko du, eta zerbitzua emateko ebazpenean etxez etxeko laguntza-zerbitzuari dagokion zenbatekoa ordaintzeko konpromisoa onartu beharko du, zerbitzua jasotzen hasteko baldintza gisa.
2. Erabiltzaileak ordaindu beharrekoa kalkulatzeko kontuan hartuko da haren ahalmen ekonomikoa eta dagokion ordenantza fiskalean horri buruz jasota dagoena.
3. Zerbitzuaren orduko prezioari erabiltzaileak ordaindu beharreko orduko ekarpena kenduta ateratzen den zenbatekoa Basauriko Udalak ordainduko du; dagokion ordenantza fiskalean jasota dagoenaren arabera kalkulatu da.

26. artikulua.— Zerbitzuaren erabiltzailearen ekarpena

1. Araudi honetan xedatutako zerbitzuen erabiltzaileek dagokion prezio publikoa ordaindu beharko dute. Prezio hori erabiltzaileen ahalmen ekonomikoa kontuan hartuta kalkulatu da, dagokion ordenantza fiskalean ezarritakoaren arabera.
2. Erabiltzailearen ekarpena dagokion ordenantza fiskalean jasotzen diren elementuen arabera ezarriko da.
3. Ahalmen ekonomikoari buruzko datuak faltsutu edo ezkatutuz gero, eskaera artxibatatu egingo da, edo onartua izan bada, zerbitzua amaitu egingo da, gertakari horietatik eratorri daitezkeen erantzukizunak alde batera utzi gabe. Udalak erabiltzaileari laguntza edo hobariren bat aplikatu badio prezioan, dirua itzultzeko prozedurari ekingo zaio.
4. Erabiltzaile bakoitzak egin beharreko ekarpena ofizioz berrikusi beharko da, edo erabiltzaileak edo haren ordezkariak eskatuta, baldin eta edozein baldintza eta inguruabarretan ekarpenean aldaketak eragin ditzaketen aldaketak gertatzen badira, dagokion ordenantza fiskalean ezarritakoaren arabera.



VII. KAPITULUA

ARAU-HAUSTEEN ETA ZEHAPENEN ARAUBIDEA

27. artikulua.— *Arau-haustek*

Arau-hauste administratiboak dira Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legean tipifikatutako legeen eta araudien aurkako ekintzak eta ez-egiteak, alde batera utzi gabe gainerako ordenamendu juridikoan aurreikusitakoak.

28. artikulua.— *Zehapenak*

Aurreko artikuluan tipifikatutako arau-haustek eginez gero, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legean aurreikusitako zehapenak aplikatuko dira.

Araudi honetan araututako etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren erabiltzaileei egotz dakizkiekeen arau-hauste oso larrien kasuan, zehapen gisa metatu ahal izango da esku-bidea sei hilez etetea, etenaldi horrek babesgabetasun-egoera ekar badezake edo mendekotasun-egoeran dagoen pertsona bat artatu gabe uztea eragin badezake izan ezik.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengo Xedapen Gehigarria

Etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren bidez, erabiltzaileak bere etxean eta komunitate-ingurunean jarraitzea erraztuko duten esperientzia/jarduera/prestazio askotarikoak eta berritzaileak jarri ahal izango dira abian.

Bigarren Xedapen Gehigarria

Erabiltzaileei Erregelamenduaren laburpen bat emateko egingo da, erraz irakurtzeko formatuan.

Hirugarren Xedapen Gehigarria

Araudi hau etxez etxeko laguntza-zerbitzuan sartzeko eskaera berri guztiei aplikatuko zaie.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Xedapen Indargabetzaile Bakarria

Indargabetuta geratuko dira maila bereko edo beheagoko arau guztiak, araudi honetan xedatutakoarekin kontraesanean edo bertan xedatutakoaren aurka badaude.

AZKEN XEDAPENAK

Azken Xedapenetatik Lehenengoa

Alkatetzak ahalmena du araudi hau aplikatu eta garatzeko beharrezkoak diren arau guztiak emateko.

Azken Xedapenetatik Bigarrena

Araudi hau Bizkaiko Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hamabost egun igarotzean jarriko da indarrean.



II. ERANSKINA

ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA-ZERBITZUAREN INTENTSITATEAK:
8.5. ARTIKULUA

Erabiltzaile-Tipologia	Orduak/Hilean	Beste zerbitzu batzuekin bateratzean dagozkion orduak
III. MAILA	65-94 ordu	Gehienez 65
II. MAILA	38-64 ordu	Gehienez 40
I. MAILA	20-37 ordu	Gehienez 22
Bakarrik bizi diren eta familian zein gizartean babes-sare eskasa duten 85 urtetik gorako pertsonak	Gehienez 30 ordu	Ez dagokio
Babesgabetasun-egoeran edo babesgabetasuna izateko arriskuan dauden pertsonak, bazterkeria-egoeran daudenak, abandonatuta daudenak edo tratu txarrak jasotzen dituztenak.	Gehienez 30 ordu	Ez dagokio
Gaixorik dauden pertsonak edo zainketa aringarriak behar dituztenak.	Gehienez 30 ordu*. Egoera hori gertatu aurretik ere etxez etxe laguntza-zerbitzuaren erabiltzaileak badira, orduak hiru hilean zehar metatu ahal izango dira, sei hilera luzatzeko aukerarekin, aldez aurretik balorazio tekniko egin ostean.	Ez dagokio
Beste kasu batzuk: bizikidetz-unitateko kide batek baino gehiagok badu mendekotasun-balorazioa.	Gehienezkoa: mendekotasun maila handiena duenari dagokion ordu kopuru maximoa gehi mendekotasuna duen edo mendekotasuna izateko arriskuan dagoen beste pertsonak jaso zezakeen ordu kopuru maximoaren %50. 3 pertsonak edo gehiagok badute mendekotasun-balorazioa, ordu kopuru maximoa 80koa izango da.	-
MBB 23-24 mendekotasun-arriskua	Gehienez 22	Gehienez 20 (eguneko arretarekin)
Desgaitasuna (+ %33) aitortuta duten 60 urtetik gorakoak eta mendekotasun aitorturik ez duten 65 urtetik gorakoak	Gehienez 20	

**III. ERANSKINA****DOKUMENTAZIOA**

- Etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren eskaera-orria.
- Eskatzailearen eta bizikidetz-unitateko 14 urtetik gorako gainerako kide guztien NANaren edo nortasuna egiaztatzen duen edozein dokumenturen fotokopia.
- Familia-liburua, bizikidetz-unitatean 18 urtetik beherakoak badaude, edo, halakorik ezean, zaintza, jagoletza edo tutoretza egiaztatzen duen agiria.
- Gizarte Segurantzako txartelaren edo Osasun Identifikaziorako Txartelaren fotokopia.
- Datu pertsonalak kontsultatzeko edo egiaztatzeko baimena.
- BFAk mendekotasunaren balorazioari buruz emandako ebazpena edo haren eskaeraren fotokopia.
- Hala badagokio, mendetasunaren edota desgaitasunaren balorazioa, beste autonomia-erkidego batean egin bada.
- Errentaren gaineko zergaren azken aitorpenaren fotokopia, edo, hala badagokio, aitorpen hori egitetik salbuetsita egotearen ziurtagiria.
- Azken 5 urteetako ondasun higigarri eta higiezinaren ziurtagiria, Foru Ogasunaren ordezkariak emana.
- Azken 5 urteetako diru-sarreraren, ondasunen, kapital higigarriaren eta higiezinaren erantzukizunpeko adierazpena. Ondasunak eskualdatu badira, eskualdaketa hori egiaztatzen duen agiriaren fotokopia aurkeztuko da.
- GSINen pentsio-ziurtagiria.
- Lan-kontratua eta azken hiru nominak.
- Eskatzailearen izenean dauden kontu korrante, diruzko gordailu, balore higigarri eta gainerako guztien azken 2 urteetako mugimenduen laburpena.
- Eskatzailearen izenean dauden kontu korrante, diruzko gordailu, balore higigarri eta abarren azken 2 urteetako batez besteko saldoaren ziurtagiria.
- Bankuko kontuan zorduntzeko baimena.
- Osasun-arazoak dituzten pertsonentzako txosten medikoa, ez dagokionean mendekotasunaren edota desgaitasunaren balorazioa eskatzea.
- Medikazio-jarraibideak jaso dituen txosten medikoa.
- Gastu kengarrien egiaztagiria (etxebizitzaren alokairua, hipoteka-kreditua, etab.).
- Desgaitasun-ziurtagiriaren fotokopia.
- Gizarte zerbitzuen iritziz interesgarria den beste edozein dokumentazio.